

Gure proiektua funtsezko hainbat jardueratan banatzen da. Lehenik eta behin, gure arazoari irtenbidea bilatu behar diogu; gero, produkzioarekin hasi behar dugu, eta, azkenik, plataforma- edo sare-jarduerak gehitu behar ditugu, gure produktua saltzeko orduan nolabaiteko abantaila emango digutenak. Salmenta errazteko, sustapen-tresnak erabiliko ditugu, hala nola hainbat plataformatako iragarkiak. Noski, gure bezeroek aseguru eta mantentze-lanak izango dituzte.

Gure proiektuan, galdutako mugikortasunaren zati bat berreskuratzen laguntzen diogu jendeari, eta baliteke nolabaiteko autoestimua ere lortzea. Bestalde, beren bizitzako bertsio normalago bati heltzea eta autosufizientzia gehiago izaten laguntzen diegu.